

CAMPAÑA CONTRA EL HAMBRE

**Manos Unidas**  
GOSEAREN AURGAKO KANPAINA



UN MUNDO INJUSTO TE DESAFIA

ZUZENKONTRAKO MUNDU HONEK  
ERRONKA JOTZEN DIZU

## UNIBERTSITATEKO ARAZO LUZEA

Komunikabideetatik irakurri ahal izan denez, azken bizpahiru urteotan burruka luzea gertatzen ari da *Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea* deritzanean. Beharbada ez da gehiegi ulertzen kanpotik, eta horregatik uste izan dut, arazoaren azalpena egitea interesgarri izan daitekeela, historia eginez hasi eta zenbait oinarri ideologiko aztertuz, hala nola irakasle batzuk agertu duten kontzientzi objektzioaren eta intsumisioaren aipamena eginez, eta arazoaren oinarrian dagoen euskal irakaskuntza-sistema propioaren sorrerarena.

### **Arazoaren historia laburra**

Hasteko, oraingoaren «aurrehistoriara» joanez, kontratu laboraldu irakaslegoaren eskaria hirugogei hamarreko hamarkadaren hasierakoa izan zela esan dezakegu. Orduan, estatu-mailan, funtzionaritzaz bestelakoa izango zen irakaslego-mota sortzea zen Irakasle Ez-Numerarien («Profesores No Numerarios» edo PNN famatuak) helburua.

Dena dela, 1983. urtean PSOEek orduko PNNen mugimendu haren heriotza ekarriko zuen, «Ley de Reforma Universitaria» (LORU) izena daramana. Lege horren helburua, Espainia osoko unibertsitateak uniformizatzea zen, benetako unibertsitate

espainiarra sortzeko. Horretarako tresna modura, irakaslego iraunkor guztia funtzionari bihurtzea erabaki zuten, praktikan unibertsitateei inolako autonomiarik utzi gabe. Eta horrekin batera, estatu barneko komunitate autonomoen kompetentzia guztiak murriztu eta mugatu nahi zituzten, *de facto*, autonomia politikoa ere paper errea bihurtuz.

Geroago, nahiz eta lehenagotik UPV/EHUko Klaustro unibertsitarioak gehiengo oso handiz irakaslego propioaren aldeko erabakiak hartu, autonomia unibertsitarioari muzin eginez, UPV/EHUko estatutuak onartu ziren 1985. urtean, LORUren kopia hutsa izanik. Horrela, unibertsitate espainiarra Euskal Herrian inposatzeko pauso bat eman zen. Hala ere, eta seguruen hau ez da kasualitatea izan, praktikan lege horrek izan duen erresistentzia bakarra *Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean* izan da, hemen problema espezifikoa baitadude, euskal arazo nazionalen beren oinarria dutenak, horien artean hizkuntzarena dagoelarik. Irakasle euskaltzale askok uste dute, funtzionaritzaren espainiarraren bidez ia ezinezkoa dela unibertsitate hau euskalduntzea, eta sistema funtzionariala desegokia dela euskal lerroak garatzeko. Hortik dator beren ekimena irakaskuntza-sistema propioa eratzeko, zeina funtzionaritzaren ez den bestelako oinarrietan finkatuko den. Eta ekimen horixe da burruka luze honen lehenengo zutabea.

Honetan, bada, 1987. urtean berriro ere kontratu laboralak irakaslego propioaren aldeko mugimendu bortitza sortu zen. Bi aldiz, UPV/EHUko Klaustro unibertsitarioa asmo horren alde agertu zen, nahiz eta ezinezko bihurtu zen estatutuaren aldaketa eratorritzea, horretarako gehiengo kualifikatua behar baitzen, bi herenetakoa, gehiengo absolutua baino askoz handiagoa. Legea ipintzean, ez aldatzeko tranpa ere jarria zuten, noski.

1987.eko urrian, gerorako garrantzia izango zuen kontratu administratibo berri bat sinatzera behartu zituzten irakasleak. Denborarekin ikusiko zenez, kontratu hori ilegala zen, unibertsitateak berak bere legeen aurka eginikoa. Horregatik

irakasleak ez zeuden ados, eta, prozezu judizialaren ondoren, Bizkaiko Tribunalak kontratu laboralak zirela adierazi zuen argi eta garbi. Bi urte geroago, 1990. urtean, sententzia hori firmea zela erabaki zen, horixe izanik oraingoz firme den sententzia bakarra, beste guztiak modu batera edo bestera oraindik erabatekoak ez baitira, errekurriturik baitaude. Hots, *sub judice* daude.

Kontratu laboral horren inguruan azaldu zen problema bere laztasunik latzenez. Barberá jauna errektore zelarrik, eztabaida sortu zen kontratuaren denboraltasunaz. Berak zioen, irakasleen kontratuak laboralak izan arren hiru urtekoak zirela eta irailean amaitzen zirela. Irakasleen ustez, ordea, laboralak izanik iraunkorrak ziren, irakasle guztiek hiru urte baino gehiago baitzeramatzaten unibertsitatean bertan lanean, eta, ondorioz, behin-betirakoak ziren. Esan behar da, horietariko batzuk hogeituz gora arituak zirela. Ez ziren, beraz, etorriberriak.

Sei hilabete egon ziren unibertsitateak despediturik, nahiz eta bertan segitu zuten lanean, klaseak emanez eta ikerkuntza-lanak eginez. Azkenean, Bilbo, Donostia eta Gasteizeko epaileek horietako 6 irakasleren despidoa egokitzat hartu zuten, unibertsitatean zeukaten lehenengo kontratua izanik, baina beste 91 irakasleren kasuan despidoak nuluak zirela esan zuten, eta hauek berronartuak izan ziren. Despedituriko beste seiren kasuan, negoziazio bidez, onartuak izatea lortu zen.

Barbará jauna ez zen horretan gelditu, ordea, eta errekurritu egin zuen sententzia. Horrela, 1992. urteko otsailean, Euskal Komunitate Autonomoko Auzitegi Nagusiak aurreko sententziak errebokatu egin zituen, esanez, irakasleen kontratuak 1990.eko irailaren 30ean amaitu zirela. Irakasleak, noski, ez zeuden ados sententzia horrekin eta oso gogor salatu zuten epaileen jokaera, esanez, sententzia erabat politikoa zela -esan nahi baita, guztiz injustua-, eta inola ere ez zuela legislazio laborala kontutan hartzen. Horregatik errekurritu egin zuten sententzia Madrilgo Auzitegi Gorenaren aurrean («Tribunal Supremo» deritzona). Momentuz gauzak hor daude, *sub judice*, erabakiaren zain.

Edozelan ere, unibertsitateko talde errektoralak, Goiriena errektore berria buru duela, lehenago Barberák harturiko erabaki berbera hartu zuen 1992.eko martxoan. Irakasleak aukerabide bortxatuan jarri zituen; berak esandako kontratu administratiboa sinatu ala kalera. Berriro ere, presio horren eraginpean, irakasle gehienek eskainitakoa hartu zuten. Baina 9 irakaslek tinko iraun zuten beren eskubideen defentsan, eta ez zuten sinatu. 9 irakasle horiek despediturik geratu ziren 1992.eko martxoaren 31tik aurrera.

Hala ere, ordutik aurrera, irakasleok beren lanean segitu dute, etengabe, irakastaldiak emanez, ikerkuntza eginez, beren bulegoetan egunero lanean ihardunez eta ikasleen galderazalantzei erantzunez, examinak burutuz,..., hitz batez, irakasle normal batek betetzen dituen lan-mota guztiak normaltasunez eginez. Gauza bat izan ezik, kobratu gabe alegia, despediturik baitaude. Nork ulertu halakorik? Traba berezirik ez lanpostuan egoteko, nahiz eta despediturik egon, lana egin eta ordaindu ez. Unibertsitatea ongi probetxatzen ari da egoeraz, inolako irakasle ordezkorik jarri gabe, berak eman behar lukeen zerbitzu publikoa irakasle despedituek eskaintzen baitute. Noiz arte horrela?

Lerro hauek idazten ari naizenean, hamar hilabete luze pasatu dira irakasle horiek despediturik gertatu zirenetik, eta oraindik ez da arazoaren soluzioa bideratu. Irakasle despedituak behin-behineko irtenbidea eskatzen ari dira, 1992-93 ikasturtearen normaltasuna bermatzeko eta ikasleen eskubideak kalteturik izan ez daitezen; baina beti ere kontratu administratiboa izango ez den irtenbidea eskatuz, uste baitute, hori onartuz gero irtenbiderik gabeko bide batetan sartuko lirakeela, azkenean funtzionari bihurtzera eramango lituzkeena. Eta horren aurrean beren *kontzientzi objektzioa* agertu dute, hurrengo atalean aipatuko den modura. Errektoregoak, ordea, ez du inola ere behin-behineko irtenbide negoziaturik planteatu, Barberáren denborako irtenbideari eusten diolarik.

Arazoaren irtenbide duina eskatzeko, eta aldi berean, guztiz injustua den egoera horregatik protestatzeko, J.R. Etxebarria bere

bulegoan entzerratu zen 1992.eko irailaren 16an eta ordutik hona bertatik atera gabe dago. Geroago; J.L. Herrero irakasleak 18 egunetako gose-greba bat egin zuen, beraren ordezkoi lanean jarritako eskirolagatik protestatzeko. Azaroaren 5ean irakasle funtzionaria den J. Izko de la Iglesia bere bulegoan entzerratu zen, eta bertan dirau, despedituetik elkartasuna adieraziz. Abenduan beste bi irakasle despedituk, A. Azkargota-k eta E. Lopez-ek, zortzi egunetako gose-greba egin zuten. Abenduaren 23an K. Gorostiaga irakaslea bere bulegoan entzerratu zen eta bertan dirau. Bestalde, Gabon jaietan beste irakasle despedituak ere entzerraturik egon dira unibertsitatean.

Bitartean, bi saio egin dira negoziazioa bultzatzeko, bata azaroan eta bestea abenduan, baina oraingoz bien emaitza hutsaren hurrengoa izan da. Hirugarrena izango al da azkena?

### Laguntza batzordea

Gauzak horrela, egoera ustelduz doa eta horregatik, unibertsitate barruko eta kanpoko pertsonak eta taldeek irakasle despedituen aldeko laguntza-batzordea eratu dute 1992.eko azaroaren 26an, agiri publikoa eginez, arazoaren itenbidea bilatzeko.

Agiria luzea da baina interesgarria izan daiteke bertako zenbait pasarte hona ekartzea. Sarrera baten ondoren, honelaxe dio: *«Arestian, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle batzu despedituak izan dira, betako unibertsitatearen eta euskal gizartearen barnetik sorturikoa izango den kontratu laboraldun irakaslego propioaren eskaerarekin kontsekuenteak izateagatik. Egin dutena, daukaten kontzientzi objektiboa praktira eramatea baino ez da izan, beren jarrerarekin lehenago unibertsitatearen beraren gobernu-organismoek harturiko erabakiak bete eraztea eskaturik, are gehiago, eskari horiek erakunde horren barneko kontsentsu zabala dutenean».*

Eta aurrerago, laguntza-batzordearen izatearen arrazoia honelaxe adierazi dute: *«Egin dituzten eskarien zuzentasunaz*

*jabeturik, eta jadanik luzeegi dirauen arazoaren irtenbide negoziatuaren aldeko jarrera eraginkorra agertu nahirik, gizarte-sektore desberdinetako pertsonak irakasle despeditu horien aldeko laguntza-batzordea antolatzea erabaki dugu». Bukatzeko, eskari moduko asmoen agerpena dator: «Gure ustez, elkarrizketaren bidea -eta ez inposizioarena- da agintiaren konpontamoldeak eta ekintzabideak arautu behar dituen, gure herriaren ekintza sozioplitikoaren edozein eremutan, bertako normalkuntzarako bidean. Izpiritu eta asmo honekin gonbitea luzatu nahi diegu batzorde bonen lanarekin indarrak bildu nahi dituzten pertsona guztiei, batzordetik sor daitezkeen inizatibetan parte har dezaten».*

### **Objektore eta intsumiso**

Artikulu honetan behin baino gehiagotan azaldu dut kontzientzi objektioaren arazoa eta harrigarria gerta daiteke. Aldizkari honen irakurlearentzat, despedituen beren hitzak ekariko ditut. Honelaxe dio EUSKALDUNON EGUNKARIAren 1993.eko urtarrilaren 20an ateratako artikulu baten zatiak:

*«UPV/EHuren barnean azken hiru urteotan bizi dugun arazoaren oinarrian, irakaskuntza-sistemaren inposizioa dago, gure ustez, Espainiako ministraritzak estatuko funtzionari izatera behartu nahi izan gaituelarik. Arazoa laborala ere ba da, tartean despidoak daudelako, noski, baina izatez hori baino sakonagoa da, dudarik gabe.*

*Urte luzeak daramatzagu unibertsite honetan unibertsite publikoari dagokion zerbitzu publikoa gizarteari eskainirik. Ez dugu inolako kexu laboralik jasan, ez ikasleen aldetik ez agintari akademikoen aldetik. Lanari dagokionez barrotasunez esan dezakegu, geure parte ondo bete dugula. Hala ere, unibertsiteak etengabe inposatu dizkigu baldintza laboral desegokietako kontratu denboral mugatuak. Urtebeteko, bi urtetako, hiru urtetako eta bost urtetako kontratuak sinatu izan ditugu behin eta berriro, bakoitzean etorriberriak baitin zerotik hasi behar*

izan dugularik. Hau guztiau kontatzen dugu, azken kontratuaren unera nola iritsi ginen uler dadin, inposizioetik inposizioa bizi izan garela, alegia, lan iraunkorra egiten duenak lan-kontratu iraunkorra izateko duen eskubideari barre eginez.

Aldi berean, Euskal Herrian bizi garenez, ekimen berezia izan dugu euskal irakasle-sistema unibertsitarioa sortzeko asmoz uste baitugu, kanpoko eredu funtzionarial espainiarra inposatu nahi zaigula, gerora ere unibertsitate kolonizatua izateko bidean. Gure eritzian, irakasle funtzionariala, hots, Espainia osorako funtzionarien gorputz bakarraren ezarpena, unibertsitate honen kolonizazioaren ardatza da, eta horregatik bururatu gara, irakasle-sistema propioa sortzeko, irakasle propioa izenarekin bataltu duguna. Ekimen horretan hainbat eta hainbat irakasle parte hartu izan dute urteotan. Irakasle propioa eratzeko bidean, funtzionariala ez den kontratu-mota iraunkorra sortu behar dela uste dugu, kontratu laboralaren forma dagoenik egokiena dela eritzirik, eta horretan saiatu izan gara. Eta hori koherenteke defenditzearen, despeditu izan gaituzte.

Ulertu nahi bada, objektore intsumisoak izatearren despeditu gaituzte. Jadanik 1990.eko otsailaren 20an gutariko batzuek sinaturiko agiri publiko batetan dekalogo modura adierazi genuenez: «Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaile modura iraunkorki lan egiteko funtzionari izatera behartzea, gure oinarritzko eskubideen aurka doala uste dugu, eta baldintza hori betetzeko kontzientzi objektzioa dugula aldarrikatzen dugu publikoki». Eta jarraian horren azalpena egin genuen, esanez, «Unibertsitateak gizarteari eskaintzen dion lana, zerbitzu publikoa dela, baina horrek ez du halaberbarrez funtzionari izatea ekarri behar, izaera honek Estatuaren egiturarekiko menekotasuna exijitzen baitu. Horren aurrean geure kontzientzi objektzioa aldarrikatzen dugu».

Geure kontzientzi objektzio horri etikoki eta irmoki eustearren, etengabe diskriminaturik egon gara geure eskubide akademiko



*eta ekonomikoetan, maila akademiko berbera eta betebehar berberak dituzten funtzionarioekiko konparatuz beti ere geure kalietan, eta gure lan-baldintza ekonomikoak beratek izan dituztenekiko bortizki okerturik egonik.*

*Bistan da, beraz, kontzientzi objektzio hori izateak diskriminazioa pairatzera eramango gaituela, eta, bestetik, egoera diskriminatorio horrek zerikusirik ez duela zientzia, jakintza edota lanarekin, ideologiarekin baizik. Diskriminazio ideologikoa, hortaz.*

*Azken ahaleginean ere, kontratu administratiboa sinatzea eskaini ziguten berriro. Inposatu nahi ziguten, hobeto esateko. Eta ez dugu sinatu, borren aurrean intsumisoak garelako. Zergatik? Arrazoa oso argia da. Gure ustez, kontratu administratiboa trikimailu legal bat besterik ez da, funtzionari bihurtu arte unibertsitatean egoteko. Egoera etengabe luza daiteke, behin eta berriro kontratu denboral mugatuak eginez, barik eta funtzionaritzaren amua irentsi arte. Kontratu hori, birsortu nahi duten egitura funtzionarialaren mesederako behin-behineko egoera da, hura berrelikatzeko pauso beharrezkoa. Horregatik, funtzionaritza bezainbesteko inposizioa da kontratu administratiboa bera ere. Gainera, koartada bat da, bestelako alternatibei bide guztiak oztopatzeko eta ixteko. Ordezko zerbitzu baten antzekoa da, egitura funtzionariala betirakoa eta bakarria izan dadin. Horregatik egin gara intsumisoak, egoera horri buelta emateko ukazioa posiblea izan dadin».*

Honaino artikulua. Uste dut onena arazoa dutenei hitz egiten uztea dela, eta horregatik egin dut transkripzioa.

### **Ondorio modura**

Etorkizuneko Euskal Unibertsitatea euskaltzaleen buruan etengabe egon behar duen asmo eta helburua delakoan nago. Zutabe desberdinak izan beharko ditu, nire ustez. Lehenengo eta behin, *euskara* izan beharko da bertako hizkuntza, «euskal» izena

izan nahi badu behintzat. Gure hizkuntzak aski frogatu jadanik, jakintza eta kultura unibertsaleko gaiak lantzeko eta sakontzeko gai dena. Eta euskal kultura ulertzerik ez dago euskararik gabe. Izan ere, euskaldunok unibertsalak izateko dugun bide bakarra, euskaldun modura munduan agertzea da. Bestela ezer ez baikara. Gu izatean gara unibertsalak, edo ez gara.

Euskara da, beraz, lehenengo zutabea, baina bestelakorik ere ba da. Euskal gizarteaz lotuta egon beharko du, Euskal Herriko problematikari irtenbideak emateko. Horretarako, irakaslego egokia beharko da, bertakoa oinarriz eta bertatik antolatua. Helburu horrekin nahitaezkoa dakusat irakaslegoa Euskal Herrian antolatzea. Horixe da, ene ustez, irakasle despeditu hauek -eta beste askok- sortu nahi duten *irakaslego propioa* deritzon horren ingurukoa.

Ba dira bestelako zutabeak, hemen aipatuko ez ditudanak, irakalse despedituen inguruko gaiak lantzen ari bainaiz. Nolanahi ere, arazoa hor dagoela, garrantzizkoa deritzot berori konpontzeko erabaliko den metodologiari. Nik zalantzarik ez dut, arazoan aurrean koponketarako dagoen biderik egokiena, elkarrizketan oinarrituriko akordioa bilatzea dela. Irakasle despeditu horien aldeko laguntza-batzordeko partaidea naizenez, horixe da eskatzen dudana. Noizko akordioa?

*Patxi Uribarren*